

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Kokondoko kokoa

HAIZEAREN AIREA dantzatzuz ospatzen dute landareek uzta, fruituetako haziek berenganatu dituzten lur berriak.

Ura ere garraibide egokia da, erreka, ibai, errio eta itsaso, auskalo zenbat luberri eta herri-berritarako zubi... Hazi askorentzat egokia, batzuentzat aproposena. *Cocos nucifera*, kokondoari galde. Kokondoa itsas bazterrean hiltzera, hau da, jaio eta bizitzera ohitu den landarea da. Hezetasuna eta gatza nahitaezkoak ditu bizitzeko, baina baita argia ugari eta temperatura epelak ere. Ez da, beraz, edozein itsasotakoa, tropikoen zale, aukera egiten ez da makala: Bermudak, Kiribati, Polinesia, Filipinak, Indonesia, Hawaii, Kanariak...

Aukera egiten du bai, ezagutu itsaso guztiak ezagutzen baititu. Norvegia aldeko itsaso ezin hotzagoetan ere ikusi izan dira koko esploratzaileak. Milaka urtetako bizimoduan kokondoaren kastak diren eta ez diren



Cocos nucifera, kokondoa.

itsas bazter guztiak ezagutu ditu. Eta lurra etengabeko aldaketan bizi denez, zer gerta ere, inongo zokoren batean berarentzako moduko lurren bat sortu baldin bada, sumendiren baten purrustadak hondartzaren bat gainka hartu edo irla berrien bat sortu badu, han behar du, urrutira gabe igeri dabilen koko bat, luberria jo, sustraiak amarratu eta betirako portua hartzeko. Espeziearentzat kolonia berri bat sortzeko. Hemen ere, itsasoko gatzaren gozoan, hezetasunaren zirrian, eguzkiaren epelean, argiaren kiliman... limurkerian lizun haziko da kokondoa, mareen uhinetara lainezaz makurtuta. Makurtuta, azkarra baita kokondoa eta itsasoren zubian utzi nahiko ditu sortuko dituen kokoak, bera sortu zuena bezalaxe bidaiari izan eta luberriak ezagutu ditzaten. Hone-tarakoxe diseinu ezin hobeko osatuz, zaku babesle batez jantzi eta igerian luzez, urtetan ibiltzeko adinako forma emango dio. Perfektua.

tarakoxe diseinu ezin hobeko osatuz, zaku babesle batez jantzi eta igerian luzez, urtetan ibiltzeko adinako forma emango dio. Perfektua.

Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Badakit gai hau irratian aspaldi ez dela aipatu duzula, baina ez dut gogoratzen nola kendu behar ditugun kanaberak. Guk moztu egin ditugu, baino horrela akabatzen al dira? Eskerrik asko. Josune Etxeberria (Zaldibia).

Kaixo Josune. Kanabera kentzea ez da erraza. Guk ikusten ditugun kanaberen antzekoak dituzte lur azpian, eta urtetik urtera landarea erruz zabaltzen da gero eta sail handiagoak bereganatuz. Lurpeko kanabera horiek

elikagaiak hartu eta erreserbak pilatzeko baliatzen ditu. Kenduz gero landareari indarra ematen dioten erreserba horiek ahultzea da helburua, eta horretarako lur gainean dauden kanaberak eta sortzen dituen puja edo kimu guztiak, eman ahala, moztea da onena.

Kanabera bizi izan den saia berreskuratzea beste upeleko sagardoa da. Erabat agortzen, elkortzen baitu lurra. Lurra gorritu, azaltzen diren kanabera-sustraiak bildu eta lodi ongarritu beharko duzu.

Babeslea: Endanea Garden Center

Endanea

5.000 m²ko

Berategiak loraz, zuhaitzak, zuhaitzak eta osagariz beteak.

Zatuz udazkeneko koloreak ikustera

Atzeratik sartzea: 100etatik 2000etara
Igandak, astelehen eta jazarrik: 100etatik 1400etara

Jatorria: Auzo 40, 14-1 (Irungo Ospitaleko Diteparuzasi)
20200 Hondarribia • Tfnoa: 943 641 710

www.endanea.com